

Juan Iturria Astiazaran

*Zarautz,
Gipuzkoa
(1921-2016)*

Aurkibidea

Biografia



Zarautzen Zigordia kalean jaioa, orain Zuhaiztin bizi da. Lanbidez, ebanista. Itxaropena inprimategian ere jardun zuen lanean.

Zintak

ZAR-012

- **Proiektua:** Zarautz Hizketan - Zarauzko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Data:** 2004-12-15
- **Iraupena:** 78 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

Pasarteak

1. Familia, "Iturria" abizenaren jatorria

- **Erref:** ZAR-012/002
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:02:50. **Bukatu:** 00:03:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Noiz jaiotakoa den, bere aita Seguran jaioa zen. Abizena nondik datorren.

2. Nolakoa zen Zarautz garai batean

- **Erref:** ZAR-012/003
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:03:40. **Bukatu:** 00:05:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Nola gogoratzen duen lehenagoko Zarautz. Kaleak nolakoak ziren.

3. Eskolan neska eta mutilak banatuta

- **Erref:** ZAR-012/004
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:05:14. **Bukatu:** 00:07:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Eskola. Nora joaten zen. Emakumeak eta gizonezkoak banatuta. Irakasleak. Karabineroek ze entretenimendu zuten. Guardakostas-a.

4. Umetako jolasak eta jolastokiak

- **Erref:** ZAR-012/005
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:07:12. **Bukatu:** 00:09:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Non jolasten zuten. Pilotan aritzen ziren. Garai hartan pilotari onak zeuden. Futbolik ez. Emakumeak sokasaltoan. Mutilak korrika apustuan, borrokan eta lapurretan ere bai. Estazio aurrean, Beistegiren finka zegoen (Beistegi analetako batena).

5. Arropa eta oinetakoak; "Abarkazaliak": abarkak egin eta konpontzen zituztenak

- **Erref:** ZAR-012/006
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:09:41. **Bukatu:** 00:11:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Ze arropa eta oinetako erabiltzen zuten. Alpargatak erabiltzen zituzten. Abarkak konpontzeko lekuak ere bazeuden: abarkazaleak. Eta egin ere egiten ziren Zarautzen.

Transkripzioa

- Ta, jantziya ta, zer jantzi, blusa ta apraketakin ta hola ibiltzen ziñaten?
- Alpargatak, alpargatak, alpargatak, zulatuak gehienian, zeatikan zeatzen giñuzten, baiño bakizu. Ta gaiñea pelotan asko nola iten zan, asko urratzen zian zeak, alpargatak, eta nik mou askotako alpargatak zeatu ditut: este, espartuzkuak eta gomezkuak 'e bai; baiño danak puskatzen giñuzten, ta... Eta zulua o abar, eta halare segi iten gendun, e, honbre, bai, bai, bai, bai. Garai hartan oso, askoz gutxiyo jazten zan oain baiño. Oain eozein mouz zeatzen dia ume txikiyak eta, eundoko jantzi onakin ta abar, ta. Garai hartan, ta gaiñea, urratu arte izaten zan, e, puskatu arte. Erropa bat erosten baldin bazan, ba, puskatu arte.
- Gero, albarkak konpontzea ta 're eramaten zian, ezta?
- Baita, baita, baita.
- Bazeuden hola abarkak eta konpontzen zituztenak.
- Bai, bai, bai, bai, abarkazaliak bazian, bai, bai, bai.
- Abarkak 'e bertan, Zarautzen iten zian, e?
- Bai, bai, bai, bai, iten zian.
- Nun?
- Nun? Ixkiña batian ta holaxe, ixkiñetan ta. Hemen bazan abarkazalia, gehiotan 'e bai! Ta, geoztikan 'e bai, e! Hemen arrandeia dao, hor guk Lauriano deitzen giñon lehen, este... mueble denda 're badao. Hemen, Muebles Hiru bada hemen izkiñan, arrandei bat badao, ze izena dan, e... Arrandeia bakizue zein dan? Ba, han alpargateia deitzen zitzaion. Etxiak

alpargateia. Bai, bai, bai, bai. Itulazabalgua, hemen Itulazabal zea da, da basarri bat da, ba, hango mutillak eoten zian alpargatak eta iten, ta. Ta bat baiño gehio 're bai. Beste azpeitiarrak 'e bazian, o, azkoitiarrak, azkoitiarrak, Parrokiko onduan alpargateruanekuak, han 'e... Fabiolak 'e hantxe erosiya 'e baditu, bai, bai.

6. Bazkaltzeko egunero babarrunak

- **Erref:** ZAR-012/007
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:11:50. **Bukatu:** 00:13:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Etxeko ohiturak. Gosaltzeko kafesnea zopekin eta bazkaltzeko egunero-egunero babarrunak. Postrerako etxean egindako zerbait. Berdura gutxi jaten zen. Etxean apopiloak izaten zituzten eta haiekin ikasi zuten berdura gordina jaten.

7. Kantuak, bertsoak eta antzerkia

- **Erref:** ZAR-012/008
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:13:22. **Bukatu:** 00:15:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Zinema
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Kantuan asko egiten zen. Kantuan egitera parrokiara joaten zen. Don Fernando zen organista. Antzerkiak egiten ziren, bai fraidetan eta bai parrokiari berak 12 urte inguru zituenean. Bertsoarako ez zegoen zaletasunik Baserri agertu arte. Eskolan ez zuten kantatzen. Santa Ageda eguna ere ez zen ospatzen.

8. Zarauzko Euskal Jaiaren bultzatzaileak

- **Erref:** ZAR-012/009
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:15:39. **Bukatu:** 00:17:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Ospakizunak: San Pelaioak eta Euskal Festa irailean. Mujika pintorea eta emaztea Urtetako maistra: Euskal Festaren bultzatzaileak. 5-6 karroza egoten ziren eta txistulariak. San Pelaiotan musika, estropadaren bat.. Santo Tomasak eta Santa Ageda eta halako festak ez ziren ospatzen.

9. 'Pedro Mari' antzezlan

- **Erref:** ZAR-012/010
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:17:27. **Bukatu:** 00:18:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

<p>Batzokietako taldeak. Karlistekin txoke handia zegoen. Antzerkiak indarra zuen: Pedro Mari obra herriz herri ematen zuten.</p>

10. Herria nolakoa zen; udaletxea erre zutenekoa

- **Erref:** ZAR-012/012
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:21:08. **Bukatu:** 00:25:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Herria, azpiegitura

Laburpena:

Auzoetan, denek ezagutzen zuten elkar. Azoka non izaten zen. Plaza dagoen lekuan, lehen finka bat zegoen. Udaletxearen eraikina alondegia zen. Udaletxea erre egin zuten gorriek. Honen inguruko kontuak.

11. Gerra aurretik alkate karlistak

- **Erref:** ZAR-012/013
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:25:02. **Bukatu:** 00:27:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa

Laburpena:

Beraneanteekin arazoak izaten zituzten gerra aurretik. Alkatea karlista zen eta "guardias de asalto" etortzen ziren babestera, herriak ez zuelako nahi, baina ez zuten kentzen. Hauteskundeetan abertzaleek irabazi zuten. Gerra aurretik beti karlistak ziren alkateak. Gerra garaian San Pelaioiko Aburuza jarri zuten.

Transkripzioa

- Hemen gerra aurrian, Eibarren ta hogeita hamaluan, treintaikuatruan ta egon zan rebueltak. Ta hemen Zarautzen ez zan ezer eon?
- Ez, ez. Bueno, eon zian. Hemen rebueltak bastante izan zian, beraniantiakin ta.
- A bai, e?
- Bai, bai. Beraniantiakin enfrontamentuak askotan izan dia hemen.
- Gerra aurretikan 'e bai?

- Bai, bai, bai, bai, bai. Eta seriyuak, e! Udaletxea jun, udaletxian, hemen etorri izandu zian zeak 'e bai, "guardias de asalto" protejitzea alkatia. Alkatia karlista zan, baiño hemen indarrik ez zeken orduan. Indarra ordura arte nahikua euki zuen zeak, karlistak. Baiño geo abertzaliak zeatu in genun ta, beti etortzen zian botaziyuak eta abar, atzeatu iten zian, ez dakit nik nundik noa. Eta hori botaziyuak jeneralak izaten dia, bakizu zean, España guztiyan, baiño, bai, atzeatu iten zian. Ta hala, este..., gaiñea, pertsona bat zan nahi ez zuna, herriyak nahi ez zun pertsona zan, Urriza. Ez dakit behin 'e entzun dezuen... Tolosarra zan ta familik ez zuen, ze andria Naparra zun. Eta, ba, hura zeon alkate, ta abertzaliak [...]: "Alkate ez deu nahi gizon hori, jarri zazue beste beste eozein, beste eozein. Ba daukazue aukera". Ta ez zuen kentzen. Eta horrei protejitzeko guardia asaltuak ekartzen zituen. Eta hori bizi zan hementxe ixkiñan, eta hemendikan plazaiño, hantxe, bere orgullo guztiyakin ta juten zan alkatia zean.

- Botaziyuak ingo zian, ba?

- Gero ein zian, gero irabazi zuen abertzaliak. Errex gaiñea. Horregatikan [...] zan zea, bai. Eta, bueno, nik abertzale moura 're esaten dizut, baiño, ez det uste bat 'e zeatzen detenik, esajeratzen detenik.

- Eta guerra aurrian alkatia abertzalia eongo zan?

- Ez, ez, behiñ 'e ez. Gerra denboran interinamente, orduan bai.

- Gerra aurretikan ez, e?

- Ez, ez, ez, ez, ez. Hemen beti-beti karlistak aindu due. Hemen abertzaliak esan detena, e, ta geo gaiñea gerra jun ta oso gaizki pasa 're bai, e, zea, San Pelaioko bat jarri zan, este, alkate, lehen independente ateatzen zana hemen Zarautzan, o sea, konzejaletan independente moura ateatzen zan, eta hura jarri zuen, Abruza, Abruza, San Pelaioko Abruza.

- Gerra garaian hori?

- Gerra garaian? Bai, gerra garaian. Zeatikan hura gaiñea alde in in zun geo, gerrakin batian jun in zan, ta, geo gaixki xamar ibili zan etorri zanian o zeatu zanian 'e.

12. Gerra Zarautzen, gazte baten begiek ikusita

- **Erref:** ZAR-012/014
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:27:53. **Bukatu:** 00:30:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Nola gogoratzen dituen gerra hasiera eta azken eguna. 15-16 urterekin egunkaritik jarraitzen zituen gerraren inguruko berriak.

Transkripzioa

- Nola gogoratzen dezu gerra Zarautzan, nola hasi zan, edo ze moimentu, edo?

- Moimentuak, ba, eskopeta pilluak eta guardak ikusten zian, eta... baiño hola organizaziyo jatorrikan ez da, ez zan behiñ 'e eon. Hemen, ni gogoratzen naiz, egokitu nitzan ni 're orduan, este... oain nola dao frailetako aurrian badao ba "Agencia...", nik esaten det Iberia, Iberia ez da hori...

- Halcón Viajes?

- Halcón, hori da, bai. Ba, hor ultramarinuak zian, ultramarinuak, eta oso fiñak. Esan nahi det, e, hortikan zeara juten zan asko, aberatsan txaleteta ta holako jendeta zeatu. Neguan ba gutxiyo saltzen zuen. Ta estankua 're bazan gaiñea, estankua 're. Eta jende asko pasatzen zan zea hortatik. Ba, hura sakeatu in zuen zeak, azkeneko egunian gorriyak. Abertzaliak ez, e? Gorriyak. Nik distingitu iten ditut hoiak.

- A, bai, e?

- Bai. Eta, este... Hala, han, bertako andria erten ta fabores ta fabores, sakeatzen ai diala, ta abar, ta launtzeko, ta abar, ta. Oain ez zion iñork kasoik iten zeatikan zailla zan orduan. Eta, ba... denda erdiya o hustu ziyoen, bai. Eta egoardi hartan bertan, egoardiya hartan bertan, han ixkiñan, hura zan abenida, "Avenida de Navarra" uain dana, eta han gudari batek: tan-tara [...] bi aldiz jo zun erretira, nunbait erretirada izango zan. Abertzale zea jantzita hura, gudari jantzita, hura, bai, bai.

- Ta hola gogoratzen dezu gerra hasiera?

- Bai, bai, bai, bai, bai

- Ta gero, ze eboluziyo eon zan Zarautzan?

- Ta nik perioikua eunero letzen nun, e, perioikua, e. Orduan letzen gendun guk zea, "El Diario...", ez, "El Pueblo Vasco, El Pueblo Vasco". Zan "de tendencia independiente". Oain, abertzalia zan zea, Pikabea zan hura dirijitzen zuna. Eta nik eunero, aita 'e bai, ta bueno aita letzen zuna nik letzen nun. Ta afiziyo haundiya niyon nik politikai, haundiya.

- Orduan edadea polita, hogeita...

- Ez, ez, hamabost, hamasei, hamabost, hamasei.

- Hamabost, bai, bai, hamabost o hamasei. Ta ordurako afiziyua politikara, e?

- Bai, bai, bai, bai, bai, bai, bai, bai, bai. Bai, bai.

- Ta edade horrekin perioikua egunero irakurri, e?

- Baita, ta gaiñea, joño, joño, por ejenplo, hemen Azpeitiyan por ejenplo, [...] abertzaliak, eta poza, ta horiek danak, beti izaten zan.

13. Gerra garaia; giro politiko nahasia

- **Erref:** ZAR-012/015
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:30:36. **Bukatu:** 00:35:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Gorri gutxi zegoen herrian. Berak fraideetan ikasi zuen. Apaizak, fraideak... zein alderditakoak ziren. Gerra ez zen gogorra izan Zarautzen, baina hauteskunde garaian giro nahasia zegoen.

Transkripzioa

- Ta, ze eboluziyo hartu zun gerrak hemen? Jentia, nola, o zer moimentu eon eon zan? Ze, gorriyak esan dezu asaltatu zutela hori. Ta, gorriyetan ba al zeon zarautzarrik?

- Ez, ez, ez, ez, ez.

- Danak kanpokuak zian?

- Bai, danak kanpokuak. Ta bazian, Zarautzarrik 'e bazian, hemen manifestaziyotan 'e batzutan ikusten zian. Ni republika etorri zan eunian 'e in zuen manifestaziyo bat, ta ni frailetan ibiltzen nitzan orduan, orduantxe

hasi berriya nitzan, eta aurrian Jerica, zuek ez zenuten ezautuko? Famili hori deseindu zan, Donostiyan euki zun farmaziya batek, eta deseindu zian. Ta hala behintzat, haien aita bizardun bat, ta karlista zaharretakua, "¡Viva la República!", ta, "¡Fuera, qué coño!", [...], manifestaldiak builla gehio ateatzen zuen, ta bestela armatuko zuen. Eta, gu frailetan, frailetan bazan ate bat kanpotikan 'e, errejakin itxitzen zana, eta gizon bikaiña ta zan frailia, baiño, o barroa o kanpoa, itxi in zun atia 're, bai. Eta hor 'e berriz, danetakuak zian, frailetan 'e karlista aldekuak, abertzale aldekuak, hoiek jakiten zian bai baita konfesiyoatik 'e bai, ta mou askotatik enteratzen zan bat. Ta Parrokiyan 'e bai. Parrokiyan berriz, este, zea bat ekarri zala, este, ikurriña berri bat ekarri zala, ta bedeinkatzea. Bedeinkatu nahi ez zeak, bikaiuak, jo, honbre, [...], polemikak eta.

- Gerra gogorra izan al zan Zarautzan? Gogorra gerra?

- Batez, batez, ezta batere. Ez zan batere izan. Eta aber, fijatu zaitez, gu abertzaliak izan 'e, eta desordena zeon orduan. Azken eunetan, klaro, normala da gaiña, e, ze in ez zekiyela, ta, ebakuaziyua, ta historiya, ta abar, ta. Eta hala, e, Aian zian zeak, reketiak, Aian zeuden, eta Aia juteko gure ama zanak eman zitun maindire zuiyak, "bandera blanca" nola esaten da, kotxian jarri ta, billa juteko, billa juteko reketiana. Ta gu abertzale izan... Geo berriz multa paatu gendun, multa paatu gendun gure aita "presidente de la..., de la cooperativa" zan garai hartan eta zeak, asko jarri zitun, Naparroak, karo, Naparroa itxi zanian ez baiño, iriñan billa ta jeneruan billa ibiltzen zian. Eta hoixe bakarrik zeatu zun, ta halare. Bai, ta sekretaiua berriz, zeakua, [...], Abastos bezela jotzen zan, ta sekretaiua zeakua, koperatibakua karlista zan. Ta hura kartzelan zeon, kartzela zean, eskolan, o sea, udaletxeko azpiyan kartzela. Eta gue aitak zeozar behar zunian o, zerbait, zeoze behar zanean, esan nahi det, gauza haundixio beak zeak zuena baiño gehio, hau udaletxea jun, ta gizona atea zeatik, kartzelatik, koperatiba jun, lana in, ta [...].

- Bai, baiña herriyan izango zian, ba, piska bat txokeak, eta, gerra garaian bi bandoen artean, ta...

- Bai, zean bai, botaziyoko garaian, botaziyotan bai. Ta, gu berriz, etxian eoten giñan. Ni gaiña batzutan, geroa behintzat, euki nun kargua aber, obserbatu zeñek zeñei nola zeatzen dan, ta. Ze, noa, ze tendentzita jotzen duen ta abar, ta bueno. Baiño bestela berriz ba, han, ba, joka karlistei. Bazan gizon haundi bikain bat, este, hemen salbide o deitzen ziyoena, Teresa, zean, hemen taberna bat badao, zea, este... hemen ixkiñan, udaletxeko onduan daona, jatetxia 're bada gaiña.

- Bai, bai, Sakana.

- Sakana, Sakana, bai. Ba, hori Salbidenekua zan, Salbiden. Gizon bikaiña oso. Hargiña gaiña. Haundiya gizona; harei hiru juten zitzaixkon, hiru gizon, ta errenditu beharko.

- Ordun, gerra denporan hemen bakarrik frentearen jarraipena izaten zan hemen, bestela ezer ez.

- Ez, ez, ez, ez.

- Jarraitu notiziyak nola...

- Bai, hoixe bakarrik, hoixe bakarrik.

- Hortik aurrea ezer ez.

- Ez, ez. Hemen ez zan tiruik izan gerran, zean, ezer ez. Esan deten bonba hoitxek. Ez, ez, herriyak ez zun ezer 'e sufritu.

14. Giro politikoa Zarautzen gerraostean

• **Erref:** ZAR-012/016

• **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:35:36. **Bukatu:** 00:37:33

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Nazionalak. Zestoan zegoen kuartela edo ospitale militarra eta handik etortzen ziren soldaduak. Frankismoko lehenengo urteak gogorrak: gosea eta arriskua.

Transkripzioa

- Ta gero, nola hartu zan nazionalak sartu zianian?
 - Ondo, bastante ondo, zeatikan pakia uste gendun. Uste gendun ziharo desberdiñak izango ziala, e! Habek zintzo-zintzo-zintzuak izango ziala uste genduan, bestiak baiño okerro zian. Eundoko astakeiak iten zituen. Eta geo berriz, ba, saldauak 'e formatu gabiak etortzen zian ta asko zeatikan, hori, Zestuatik, hor zea zan Zestuan, este, kuartel jenerala zeana, kuartel jeneral gaizki esan det, este... ta hemen gero Aguila Fuentes ospital militar, ospital militar fuerte bat. Ta hemen zeatikan, este, Zestuatikan, eundoko jende pilla etortzen zian, ba. Han herriyan, hura uaindik txikiyaua zan ba, zea, Zestua, eta arratsaldia pasatzea ta soldauak eta etortzen zian. Ta, zeak ikusi, arroakak, "¡ai va, qué monumentos!". Batzuek esaten zituen, nundik etorri zian tipo haiek. Bai, geo, ezautuaz ezautuaz antzeman iten da, joño, gizonak habek ez dituk lehen esandako gauzak eta, propaganda mou batea bazan, hitz ein bai, baiño... bai.
 - Ta frankismoaren lehendabiziko urteak?
 - Hoiak txarrak izan zian.
 - Gogorrak?
 - Bai, bai, gogorrak. Ta janan billa jun behar hemen batea ta bestea, ta.
 - Bai, gosia behintzat pasako...
 - Gosia 're bai, bai. Karo, gutxiyokin sujetatzen da bat, baiño, baiño... bai. Ta arriskua gaiña, esan deuna. Hemendikan, e, kanposantoaiño jun, basarritakuen billa, hi, zea, este, lakai bat iriñ, o bi, o hiru o; jun ta haiek 'e, konpromesua zeatu, kendu, ta hala juten giñan. Batzuek, e, ahal zuenak. Hori 're ahal zuenak.

15. Lanean lehen urteak

- **Erref:** ZAR-012/017
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:37:33. **Bukatu:** 00:40:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Lanean Arinen hasi zen 15 urte ingururekin eta ondoren Itxaropenara joan zen. Gero aitari laguntzera altzari dendan. 3 sozio ziren: makinazalea, biajantea eta kajakoa.

16. Itxaropena inprentan lanean

- **Erref:** ZAR-012/018
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:40:27. **Bukatu:** 00:43:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

<p>Inprentaren prozesua. Emakumeek ere bazuten beren lana. Geroago Editorial Zelaiarekin lotu ziren. Gerra garaira arte euskaraz argitaratzen zen. Ondoren, miatu ere askotan egiten zuten. Kulixka sorta eta Yakinekoak argitaratzen ziren bertan.</p>

Transkripzioa

- Ze prozesu zeukan inprentak lehen? Ze prozesu zeukan inprentak lehen?
- Inprentak lehen zeukan, ba, bueno, aber, ebakitzeko hori normala, zea, gillotina, hori normala. Baiño zeukan...
- Papela pixkat moldatu...
- Bai, papelak ekartzen zian fardotan, haiek txikitu, bere neurriya jarri, eta karo, hor zian bat plana, plana, haundiya, hemen, hua perioikua iteko moukua, ta bestia berriz txikiyaua, Minervak, Minervak, ba, hoiek azkarrauak eta hoiek zean ibiltzen zianak, e, fakturak eta milla gauza txiki xamar iten zianak, programak eta milla gauza. Eta, ba, zea hortan, hoiek, horrek molde pilla haundiya eukitzen zun, zeak, planak esan detena, perioikua iteko haundiko zea horrek, haundiya izaten zun, ta hoiek korrejitu iten giñuzen, ze falta zitun, nik letzen nitun zea guztiyak, eta bueno, honek holako zeak dauzka ta zeatu, ta berriz 'e konfrontatu, ta beno, bale. Ta orduan martxan. Ta geo berriz, ba, handikan plegatua, plegatu, doblatu, emakumiak izaten zian hortako. Doblatzen zian, ta geo berriz josi zeakin, gehienian zeakin, eskuz hura 're garai hartan. Eta, extua baldin bazan berriz, ba, grapadora haundiya bazian, fuerte samarrak ta haiekin.
- Ta, Itxaropenan ze iten zan liburua gehienbat, eo...
- Dana.
- Danetik.
- Dana, dana. Hemen geo konbinaziyo bat euki zuen, Editorial Celaia eta Itxaropena, alkarren hurre 're zeuden eta Celaian ibilitakok zian batzuek zean Itxaropenan 'e, langilliak eta nagusiyak 'e usten det baietz. Eta alkar zerbitu 're bai iten zuen. Bai, biyak 'e abertzaliak zian, ta...
- Euskarazko liburuik iten al zan?
- Dana! Garai hartan bai, geo ez. Geo atea zian, este, Emiliano Eizagirre, zea, "Tuberculosis Pulmonar" libro haundiya iten zian, ta bolumen haundikuak, eta. Eta geo [...], "Revista Geográfica Española" 're bai, bazan Valeriano Salas zea bat, Madrikon bat o etortzen zan honea ta, beak redaktatu 're iten zun ta. Ta zea, guztiya, azaltzen zan guztiya.
- Orduan, gerra garaian zu Itxaropenan ziñan.
- Ez, bueno gerra garaian bai. Gerra garaian bai, gerra aurretik ez.
- Ta gerra garaian ya ez zan inprimitu, euskeraz ta ez zan inprimitu, ez zan inprimitzen, ez?
- Gerra garaian ez, ez, ez, ez, ez, ez, ez. Hura gaiñea miatua ta izan zan, ta, askotan, ta, bai, bai, bai, askotan. Ta geo 're, geo 're, gu ibiltzen giñan garaian 'e.
- Ordun euskerazko lehendabiziko liburua Xabierto ta hoiek hor eingo zian?

- Ez, ez, Tolosan. Tolosan, bai. Hor izan zian, este, Kuliska sorta.
- Juan San Martinen Zirikadak, Eztenkadak eta hoiek?
- Juan San Martinek trato haundiya zun, honbre, askotan etortzen zan.
- Zirikada eta Eztenkadak eta hoiek, hoiek ez?
- Ez, ez, ez. Ez. Hor bolumen, zea asko zian, zea, kapitulo zea asko zian, este... Yakin 'e bai, Yakinek ere hor iten zitun, ta asko zan zea.

17. Sagardotegietako giroa, ohiturak eta apustuak

- **Erref:** ZAR-012/020
- **Iraupena:** 0:06:53. **Hasi:** 00:46:20. **Bukatu:** 00:53:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Denbora librean sagardotegira joaten ziren. Sagardotegi asko zegoen orduan; non zeuden. Sagardotegietako giroa, ohiturak, jokoak eta apustuak. Apustu bat kontatzen du. Mutikotako pasadizo bat kontatzen du. Errazionamendua.

18. Aisialdia: igandetan musika, mendira...

- **Erref:** ZAR-012/021
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:53:13. **Bukatu:** 00:55:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Igandetan zer egiten zuten. Bandak jotzen zuen igandero plazan. Auzoetako festak: Urteta. Mendira ere asko joaten ziren: Pagoetara, Itziarrera, Xoxotera, Nafarroara... Auzoetakoen artean ez zen pikerik egoten.

19. Herriko kirolari ezagunak

- **Erref:** ZAR-012/023
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:57:15. **Bukatu:** 00:58:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Pilota. Ezagunak: "Zaporra", Elustondo, Izagirretarrak... Futbolean ere nahiko onak ziren. Urzelai: denetarik egiten zuen: futbola, atletismoa, pilota...

20. Giro-politikoa gerra ostean. Garai gogorra

- **Erref:** ZAR-012/027
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 01:00:59. **Bukatu:** 01:03:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Kuadrillan denak abertzaleak ziren. Harremanak konfiantza handirik gabekoak izaten ziren. Gerra ostean euren artean bakarrik hitz egiten zuten, isilean. Pintadak. Politika-giroa.

Transkripzioa

- Ta, post-frankismua nola bizi izandu zendun politikoki? Post-frankismoa politika maillan.
- Ahal zan bezela!
- Ahal zan bezela. Zuen artean eta bazan konbersaziyoikan ta, ixillean ta...
- Ez, gu, gu gehienak abertzaliak giñan kuadrillan, ta gehien, kuadrillak gehienak holaxe zian, danak, definituak.
- A bai, e?
- Bai. O abertzale, o karlista. Abertzale gehio.
- Behin, hogeitertirik aurrea ya klasifikauta ya.
- Bai, bai, bai, bai, bai.
- Ta harremanikan ez zan izaten?
- Harremanak bai izaten zian, bai, bai, bai.
- Ze eratako harremanak, baiña?
- Ba, normalak, esan nahi det, konfiantza handikoik gabiak.
- Eta zuek, abertzaleok zuen artean izaten zan debate politikuak eta konbersaziyuak eta?
- Bai, bai. Bueno, aurretikan gehio zian, e. Hemen gerra aurretikan hemen izaten zian eztabaidak 'e bai, este... frontoian hitzaldiyak eta... Holakoik ez gendun ezautu, entzunda bakarrikan.
- Eta gerra ostian orduan zuen artean bakarrik, isilean.
- Bai, bai.
- Eta aktuaziyoikan bai, aktuaziyoikan, ekintzaikan edo zeoze? Edo zeoze publikatu, edo?
- Ez. Izaten zian, ba bueno, aber, hi, ordenak izaten zian: "hi, bihar aberri euna dek, zeoze in ber diyau". Ta bueno, aber, ta pintadak. Pintadak izaten zian ba, Gora Euskadi Askatuta, ta laburua jarri, ta abar, ta holako zeak. Ta, batzuek izaten zian... Nik laun bat banun, hil zan gizajua, este, detektibe zea zun, fama, ta gaiña izatez 'e zea, zaletasuna zun. Nei esan zian hark meza nausirako giñanian, este, "hi, Getai kamiyan zeak in omen dixkiye, pintadak, Gora Euskadi Askatuta, ta", "Ez dek egiya!", " Hi hitzan bat!". Ta "efectivamente", ni nitzan bat. Ta abertzalia zan hua 're, e, baiño.
- Ta orduan politika giroa bizi zan?
- Bai, bai bai; bizi bai, bai, bai. Ezkutuan, baiño bizi, bai, bai.
- Eta ya, pixka bat ya, zea, esan nahi det, zirkulo karlista hori, martxan noiz jarri zan hori?
- Hori gerra aurretik.
- Gerra aurretikan?
- Bai, bai.
- Eta gero segitu in zun, noski.

- Gero segitu iten zun ta, este, hau itxiya eon zan, zea, batzokiya, batzokiya itxiya eon zan. Ta bitartian berriz zirkulua joten giñan gu. Ni hiru aldiz bialduta nao zeatikan, zirkulotikan.

- Zeatikan, ba?

- Batian, aber, aurrenengua nola zan... Aurrenengua zan, ba, hantxe, baiño lehen billarra eoten zan edarra, billarra zean, zirkuluan, oso billar ederra. Hemen zean zan, Royaltiyan zan holakua, besteik ez zan. Eta... hala beira eoten genduan, [...] "hi!"... a! ez!... jokuan ai zian, bestela, mahaitan jokuan ta. Ta ni joku zalia 're izan naiz, eta hala beira geundela, etorri zan zea bat, Manterola, hil da, zea, San Pelaion zea 're euki zuen, arrandeia amak. Eta, este..., "ordena zekau afiliatuan semia bakarrikan zeatzia, asike erten in berko dek". Beno, ni kalea. Ta nei erakutsi zian bizikletan, mutil zahar bat zan, karlista, ta geo, geo gaiñea rekete izango zana, este... Eta hark pena haundiya hartu zun bialdu in zielako. "Hiri bialdu diela? Etorri neekin. Jungo al haiz?", ta "bai". Jun naiz berriro harekin. Harekin jun naiz, baiño geo ni 're zeatu, este, aldendu, ta billarrea beira, billarrekuai beira, ta halako batian presidentiak zea, Aristi, uain zea nola dao, zer da hori... este, municipal nola dao bat, Aristi, haize bat, haize bat... Ba, haren aitag, "hi, Iturria, kalea. Marcelina...", Marcelina, zeai, konserjiai, "faborez, ez gehio utzi honei etxe hontan sartzia". Ta nei berriz, hua nik hamabost hamasei urte, bat 'e inportikan ez hango jendiangatik. Ta orduan 'e gaiñea ni kontuatzen ai nitzan zergatikan hizketan ai zian. "Halakok esan du ez dala jungo botatzea", Amestigatik, ez zala jungo botatzea, este... Ordura arte beti jun zian abertzaliak eskubitik, eta orduan berriz zentrotikan jun ber zuen, eta [...] , zentrotikan, zentrotik, deretxismuai zea kentzia zala ta, ez ziyola botauko, konbersaziyo haiekin ai zan. Ba, ni orduan bialdu nien. Ta hirugarrengo aldiz, hirugarrengo aldiz, lau laun 'e bagiñan, abertzaliak, zea 're bai, Arruti, Muebles Arruti nola? Hango seme bat 'e bai. Eta Ugalde zan, gerran zea izan, rekete izan ta permisuaikin Zarautza etorri, ta zirkulua jun ta, "Ay va, dio!", gu, zirkuluan zea ederra dao, frontoi oso ederra dao, bertan iña da, beak iña, oso leuna, ta oso ona da. Paretak 'e ezkerrez o eramateko 're oso ondo zeatzen due. Gu askotan joten giñan halare, geo 're. Han pistola ateata bialdu zien. Bai, bai, bai. Ta uaindik uain hil da zea hori, rekete hori. Geoztikan nik ikusi izandu det hura jatorduan batzokiyan, ta nik ez det bialdu izandu.

21. Zirkulo karlistatik hiru aldiz bota zutenekoa

- **Erref:** ZAR-012/028
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 01:03:10. **Bukatu:** 01:07:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak

Laburpena:

Zirkulura joaten ziren batzokia itxita egon zenean; hiru aldiz bota zuten bera handik.

22. Ehungintza

- **Erref:** ZAR-012/030
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:08:08. **Bukatu:** 01:09:30

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

Laburpena:

Egurretik aparte, mekanikoak, tela fabrikak... "Textil Zarauz", "Textil Berazadi"...

23. Giro-politikoa

- **Erref:** ZAR-012/031
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 01:09:30. **Bukatu:** 01:11:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Politika kontuak. Aristokraziako jende asko zen Zarautzen eta langile asko kanpotik ekartzen zituzten. Abertzaleak. 1934-35-36 ingurua.

24. Frankismo garaia

- **Erref:** ZAR-012/032
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 01:11:29. **Bukatu:** 01:14:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

Aitak nola bizi izan zuen frankismo garaia. 5.000 pezetako multa jarri zioten aitari abertzale izatearren. Aitari buruzko kontuak.

25. Aristokrazia

- **Erref:** ZAR-012/033
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 01:14:30. **Bukatu:** 01:16:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Aristokrazia. Dirua eta indarra zuten. Ezaguna: Jose Maria Hendaia, Hotel Alamedako nagusia. "Jefe de Falange" izan zen.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com